

On Jose Maria Arizmendiarieta zenaren filosofiaren hedatzearekin jarraituz, berriz ere bidaltzen dizkizuegu HEZKUNTZA balioarekin lotutako zenbait pentsamendu, baina oraingo honetan enpresa eta kooperatiba erakundeekin zer ikusirik dutenak.

Aurrekoetan egin bezala, azpimarratu dugu pentsamendu bat, berari beste batzuk gehitzen dizkiogularik.

Mugimendu kooperatiboa ahalegin ekonomiko bat da, hezkuntza ekintza bihurtzen dena; edo hezkuntza ahalegin bat da, ekintza ekonomikoa eraldaketarako bide gisa erabiltzen duena.

(p450)

Beste gogoeta batzuk:

Hezkuntzak, lanak eta aurrezteak hain ematen dute desberdin belarrira, ezen gai bakar gisa aztertzea kontraesana dirudien; hala ere, arazo berari dagozkion hiru dimentsio edo aspektutat jo behar ditugu: gizakien eta herrien sustapen sozialaren arazoari loturiko dimentsio edo aspektutat.

(p523)

Klase baten edo herri baten emantzipazioa bere kideen prestakuntza masibotik hasi behar da. Ez dago masak hobetzerik masarik gabe.

(p194)

Autogestionatutako gizartea izango da guk denok gure prestakuntzarekin eta gure parte hartzeko gogoarekin egiteko gai garena.

(p103)

Hezkuntza da ordena sozial, humano eta justu berri baten sustapenerako oinarri naturala eta ezinbestekoa.

(p191)

Bere gaitasunak bakarrik produkziara bideratuta lantzen dituen gizakiak, makina produktiboaren esklabo bihurtzen ari da bere burua inolako sentimendurik gabe eta halabeharrez.

(p031)

Erremintak eta makinak berrikusi behar dira, baina batez ere elementu horien nagusi izan behar duten gizakien pentsaera berritu behar da.

(p180)

Kultura, zientzia, teknika dira berritzeko eragilerik aktiboena, eta eragile horiek izendatzaile komuna dute, pentsaera berria duen gizakia, alegia.

(p189)

Lanak eta ikasketek eskutik helduta joan behar dute. Ez dira inoiz ahaztuta utzi behar lanean ari direnen ahalmenak ez eta gutxietsi ere ikasketetan ez atzera ez aurrera gelditzen direnek edo ikasteaz nekatzen direnek lanerako dituzten aukerak. Aukera berdintasunak bizitzan zehar aplikatzen jarraitu behar dira, benetan gure komunitateak arinak izatea nahi badugu.
(p220)

Irakaskuntzak iraunkorra izan behar du, eraginkor izango bada.
(p179)

Enpresa kooperatiboek gelditasunetik ihes egin behar dute eta etengabe bere gizakiak prest jarri behar dituzte, haien gaitasunak arretaz kontuan hartuta, sistematikoki eguneratuta edo egokituta.
(p224)

Finantza planak nola gauzatzen diren bezain beste zaindu behar da sustapen bitartekoen aplikazioa, giza ahalmena baldintza hoberenetan aplikatuta egon dadin. Hezkuntza eta formazioa aurrerakin eta itzulkinen saldoak baino askoz errentagarriagoak dira.
(p225)

Ez dezagun ahantzi: kooperatibek eta kooperatibistek arrakasta izaten jarraituko dute baldin eta kooperatibako kideen giza gaikuntzan eta kapitalizazioaren aurrerapenean inoren atzetik gelditzen ez badira, eta, betiere, nork bere jarduera betetzeko maila egokia ziurtatzen badu.
(p514)